# IX. eranskina. ARDURAPEKO ADIERAZPENA /

........................................................................................................................................ jaunak/andreak, adinez nagusiak, ........................... ……..zenbakiko NAN eta ……………………………………………...…… ……………………………………. helbidea dituenak ........................................................................... entitatearen ordezkaritzan (IFZ............................. ,sozietate helbidea:………....................................... ……………………………………………...……...), diharduenak adierazten du:

**1.-** Ez bera ezta berak ordezkatzen duen enpresa ere ez daude sartuta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeretan.

**2.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak egikarituz, beharrezko egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarenak beteak dituela ziurtatzeko.

☐ Aurka eginez gero laukia markatu, eskumena duten organoek dirulaguntza kudeatzen duen administrazio publikoari enpresari buruzko zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

**3.-** Ez du inolako debekurik onuradun izateko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko bizitzak 4/2005 Legearen 21 bis 2) artikuluak ezarritakoaren arabera.

**4.-** Erakundea ez dago krisi-egoeran, 651/2014 Erregelamenduan eta krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Erkidegoko jarraibideetan horretarako egiten den definizioaren arabera
(Batzordearen Jakinarazpena, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31koa).

**5.-** Erakundea ez dago aurretik emandako edozein laguntza edo dirulaguntza berreskuratzeko agindu baten mende, dela laguntza hori legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela emakidan esleitutako betebeharrak ez betetzeagatik.

**6.-** Eskaera honetan ETE izateari buruz jasotako datuak Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 Erregelamenduaren jarraibideen arabera kalkulatu dira, eta erregelamendu horretan zehaztutakoa betetzen du

**7.-** Aitorpen honetan nahiz eskaeran eta eskaerari erantsita dauden dokumentuetan azaltzen diren datuak egiazkoak dira, eta ezagutzen eta onartzen ditu Laguntza Programako araudian ezarritako baldintzak.

**8.-** Badaki, ez-betetzeek edo emandako informazioaren eta dokumentazioaren zuzentasun ezak erantzukizun penal, administratibo edo zibilak ekar ditzaketela.

**9.-**Ezagutzen eta onartzen ditu abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, ezartzen dituen baldintzak.

Lekua, eguna eta sinadura